*Xabi Bandini* se encontraba en plena gira cuando llegó el confinamiento. El músico navarro no ha parado en estos meses, desarrollando distintos proyectos: desde «el single *Zalantza eta Egia*, con la potente colaboración de Chica Sobresalto», y el espectáculo para teatro *Gertutik*, «un concierto teatralizado ambientado en los ensayos que hacíamos Alberto y yo en el confinamiento», hasta «escribir y componer mi siguiente proyecto/álbum y abrir una comunidad en Patreon (La comunidad imbatible) para que nos ayudaran a crear contenidos y *clips*. Ya somos alrededor de cien".



*Jurgi Ekiza* vio cómo se cancelaban sus conciertos con Willis Drummond, además de paralizarse su proyecto en solitario y la banda Erabatera. «Para la banda, el primer confinamiento ha sido como vacaciones. Pensábamos que iba a durar como máximo hasta el verano. Yo hice dos canciones desde casa y Felix Buff ha compuesto un disco entero (como Rüdiger). Posteriormente, decidimos montar *Garai bereziendako kontzertu berezia:* la idea era tomar parte de nuestro repertorio y revisitarlo, adaptándolo a un público sentado».



Para *Zuriñe Hidalgo*, «de un día para otro, todo se vino abajo y se dio un cambio radical en mi vida». Vio cómo se paralizaba todo con su banda Hesian y quedaban afectadas significativamente sus otras actividades profesionales. Fue entonces cuando comenzó a desarrollar su proyecto personal llamado *Enraizadas*. «Hacía tiempo que sentía la necesidad de crear espacios seguros y de (des)aprendizaje para mujeres». Y el resultado no ha podido ser mejor: «visto lo bien que ha funcionado y lo positivo y enriquecedor que ha sido, mi idea es seguir adelante con este proyecto en 2021».

Para ***Skakeitan,*** la llegada de la pandemia fue «un mazazo a nivel anímico y a nivel económico». Estos meses «tuvimos diferentes iniciativas para interactuar con nuestro público a nivel entretenimiento: canciones de colaboración tanto con otras bandas como con el mismo público. Con esto queríamos cumplir dos objetivos fundamentalmente: el primero entretener a nuestrxs seguidores y, por otro lado, hacerlos partícipes del proyecto». Pero la novedad principal está por llegar: "tiene que ver con los directos y con los conciertos de presentación del disco que no pudimos dar...».



De igual manera, los festivales se han encontrado ante una difícil situación y se han visto obligados a cancelar, a celebrar una edición con poco público y bandas o, directamente, a ofrecer una edición digital. Este último caso es el de la plataforma donostiarra ***Dantz,*** que «en vez del festival, hemos creado el evento Dantz Digital, también de consumo online, pero que contiene muchas disciplinas en su haber: mesas redondas, formación, patrimonio, arte digital, nuevos espacios, etc.».



Tras cancelar innumerables giras y conciertos, tanto estatales como internacionales, el trío vasco-argentino ***Cápsula*** se lanzó a «hacer conciertos con aforo reducido, con un repertorio y escenografía nuevas para este tipo de espacios y audiencias. Y por otro lado, hemos iniciado sesiones de conciertos en *streaming* de pago. De ninguna manera reemplaza a los conciertos en directo, pero sirve para estar conectados con los fans de una forma nueva y directa».



Continuando en el ámbito electrónico, su escena ha sido una de las más afectadas por las restricciones. El DJ y promotor navarro ***Pablo Chivite*** ha visto como un gran número de fiestas y actuaciones se cancelaban, así como el proceso para la licencia de una radio digital. No han querido esperar y el proyecto radiofónico está en marcha desde el principio del confinamiento gracias a sus propios medios, además de desarrollar otras actividades como el festival Entornos art&music de Cintruénigo. «Esta situación nos ha llevado a explorar los eventos desde un punto de vista mas cultural, con un punto social importante y sobre todo a colaborar con todos los entes posibles para seguir dando valor a la cultura de la música electrónica».



La sala Jimmy Jazz de Vitoria-Gasteiz es uno de los muchos espacios afectados con «más del centenar de eventos cancelados o aplazados, meses de ertes, gastos fijos que no alcanzamos a pagar y muchos proyectos paralizados». Según indica ***Iker Arroniz,*** «proyectos relacionados con músicos locales y propuestas más amateurs, *streamings* y formatos más de corte de artes escénicas nos han servido para seguir revindicando que hay y ha habido una dejadez mayúscula con el sector de la cultura, que las ayudas han sido escasas por no decir nulas y que se nos ha criminalizado gratuitamente...».

Desde los sellos discográficos ***Airaka*** y ***Mauka Musikagintza*** afirman que «esta pandemia nos ha puesto a todas y todos patas arriba, ya que ha echado por tierra todo el trabajo ya no solo de este año, sino de los anteriores y de los próximos que vengan». Y su principal objetivo consiste en «prepararnos para poder salir a trabajar cuando vuelva la nueva normalidad. Tenemos muchas ganas de volver a trabajar como lo hacíamos antes, pero, como decía Joe Strummer, "The future is unwritten", y hoy en día más si cabe».

**Iker Bárbara**
Zarata MondoSonoro

# KAFE ANTZOKIA: HASTEKO, 25



**2020ko abenduaren 15ean 25 urte bete zituen Kafe Antzokiak. Denbora honetan Bilboko erdigunean dagoen topagunea ezinbesteko proiektuan bilakatu da euskal kulturarentzat. Irailean Gasteizen banatu ziren Musika Bulegoa Sarietan aitortu zen bere lana. Izurritearen eraginez ateak itxita baditu ere, Kafe Antzokiaren lana ezinbestekoa izaten jarraitzen du. Mikel Urbeltzekin hitz egin dugu.**

**25 urte bete ditu Kafe Antzokiak. Ireki zenuten unean ibilbide hau izango zenutela imajinatu zenuten?**
Kafe Antzokia euskalgintzaren, kulturaren eta euskarazko aisialdiaren mesederako sortu zen. Teo Etxaburuk gidatutako Gabriel Aresti euskaltegiko irakasle talde baten hausnarketan, guztiz beharrezkoa ikusten zen, eta da, euskararen erabilerak espazioak irabaztea eta bere kultura herritarrei helaraztea, gure hizkuntzaren erreferentzialtasuna indartzeko. Horrela, 1995eko abenduaren 15ean jarri zuten martxan ostalaritza, kultura eta aisia biltzen dituen kulturgunea. Aipatutako helburuak argi zeuden eta kontua zen horiek lortzeko zerbitzuak eta eskaintza ematea.

**Euskal Herriko kontzertu aretoen zirkuituan abiapuntua izan zen Kafe Antzokia. Gerora beste asko etorri ziren. Nola bizi izan zenuten hastapen hori?**
Ilusioz, gogotsu, harrera oso ona izan zen eta hasieratik herritarrek bere etxetzat hartu zuten. Garaiko euskal talde garrantzitsuenak Bilbon zuzenean ikustea, eta hori euskara bere jardunaren zentroan jartzen duen kulturgune batek egitea, kontzeptu berritzaileak ziren bai eta indar eraldatzaile handi bat euskaldungoarentzat eta Bilboko hiriarentzat. Bazegoen ere ereduak, berria izanagatik eta konparaziorako aurrekaririk ez egonik, aurrera egingo ote zuen dudarik zuenik.

**Nazioarteko biretaz gozatzeko aukera eskaini zenuten. Zirkuitu horretan sartzea ere kostako zen.**
Zabaltzetik beretik argi zegoen Kafe Antzokia bertan errotua bezain mundura irekia izan behar zela. Beste herrietako hizkuntzak eta kulturak ezagutzea, nazioarteko artisten emanaldiekin gozatzea, ezinbesteko ikusten zen gure egitasmoaren oinarritik bertatik. Gainera, atzerriko artisten emanaldiek leiho bat zabaltzen diote munduari eta gure sormenarentzako elikagai izango direlakoan eskaintzen ditugu, euskal artistentzako inspirazio iturri. Horretarako, hasieratik izan zen promotore eta nazioarteko biren antolatzaileekin harremana, gure aretoa beraien agendetan sar zedin. Egindako lanak eta denborak ekarri du promotore eta artisten artean ezagunak izatea, eta zirkuituan eta beraien agendetan erreferente izate hori indartzea, sendotzea.

**Euskal kulturaren ezinbesteko erreferentzia da Kafe Antzokia, Bilboko erdigunean.**
Musika emanaldiez gain kultur eskaintza zabal bat du: dantza, antzerkia, hitzaldiak, bertsolaritza... Gaueko aisian ere eredu bat finkatu zuen, euskal musika atzerrikoekin modu naturalean nahastuz. Euskal komunitatearentzako ezinbesteko erreferentzia da, bere ostalaritza eta kultur eskaintzengatik: ospakizunetarako, aisian, jaietan, lagunekin batzeko... Eta plaza ireki bat da lagun eta bezeroentzako, gure izaeratik sortua baina abegikor euskal hiztunak ez direnekiko ere; haiek euskarara eta euskal kulturara erakartzen ditu. Atzerritar artista zein bezeroentzat ere, Bilbora datozenean erreferentzia da, beraien mapan jartzen ditu Bilbo eta Euskal Herria.

**Proiektu ugari jarri dituzue martxan denbora guzti honetan: Kutxa Beltza, telebistako kontzertuak, Stereorocks kluba, diskoetxea, etab. Etengabeko mugimenduan zabiltzate. Kontzertu areto batek etengabean ibili behar du gauza berriak asmatzen?**



Kafe Antzokia sortu zenetik, zerbitzuak eta eskaintzak eraldatzen joan diren modu berean, jardunaren parte bat izan da gure beharrei, garaiei eta bezeroen eskaerei egokitutako, aipatu diren proiektu berri horiek asmatzea ere. Komeni da eta, gure oinarrizko helburuak mantenduz, gizartean dauden aldaketei eta beharrei adi egotea, beti ere. Horrela ikusten dugu gure lana, euskal gizarteari lotua, konektatua, emankorra, jarioaren parte.

**Kontzertu aretoak artista berrientzako ezinbesteko plaza dira. Baita artista konsagratuentzat ere. Zuen ibilbidearekin batera hainbat talde eta artista hazten ikusi ditugu (Zea Mays, PILT, Mikel Urdangarin, Anari, Huntza...). Nola bizi duzue hori?**
Plazer handiz eta pozez, gure helburuak betetzen, gorpuzten, ikusten ditugu beraien emanaldiekin, disko berriekin eta lortzen duten arrakastarekin, bai Kafe Antzokian zein munduan zehar. Euskal kultur sorkuntzaren soka horren parte gara, beraiek hazi dira eta ibilbide hori sendotzen lagundu izanak betetzen gaitu. Kafe Antzokia horretarako sortu zen eta horretan nahi dugu etorkizunean ere, kimu berriak hazten eta sendotzen laguntzen.

**Eta ezinbesteko plazan bilakatu zarete beste hainbat musikarirentzat: Ruper Ordorika, Fermin Muguruza, Gari...**
Bai noski, euskal artistentzat erreferentziazko oholtza bilakatua da aspaldi. Bertara datoz beraien lan berriak aurkeztera, zuzenekoak grabatzera, lagun arteko harreman batean. Bestetik, bertan egoten den giroa, publikoaren gertutasuna, berotasuna eta inplikazioa, bereziak dira. Horrek guztiak zirrara handiko momentuak sortzen ditu.

**Pandemiak agerian utzi du kontzertu aretoak kulturgune bezala izendatzeko beharra. Epe luzerako kultur plan batean kontzertu aretoen zirkuitua bermatzearen beharra dago.**
Agerian, edo are ageriago utzi duena da, kulturak harremanetan duela oinarria, eta teknologiak, tresna baliotsua izanik ere, ez duela ordezkatzen pertsonen arteko tratu zuzena. Hartu-emanak egiten gaitu «Gu». Euskal Herriko aretoak, «Gu» izate hori aldi oro lotu eta ospatzeko plaza gara, eta noski, horregatik hain zuzen ere, aretoen zirkuituak bermatzearen beharra begi-bistan dago.

**2021a erronka berriez beteta etorriko da.**
Pandemiak eman digun kolpeak egoera ahulean utzi gaitu, euskaragintza, kultura eta ostalaritza guztiaren antzera. Lehenik dugun erronka, aretoak normaltasunez zabaltzea da. Hori gertatzen den orduan, noski, ekitaldiz beteko dugu Kafe Antzokia, orain arte izan dugun lagun, bezero, sortzaile eta bidaideen babesarekin. Hala bedi!

**Arkaitz Villar**
Kultura Live




MUSIKARI ELKARTEA

# ARGI-ITZALEZ BETETAKO URTEA

2020. urteak musika sektoreari gogor eragin diola esatea, motz gelditzea da. Aurrekaririk gabeko krisi honek benetan nola eragin dien musikarie jakitea, nere ustez, ezinezkoa da. Saiakera asko egin diren arren, hainbat inkesta eta ikerketen bitartez, hortik atera diren datuak musikari guztien errealitatea biltzen duenaren zalantza daukat. Hain profesio heterogeneo eta intermitentea izanda, oso zaila da kasuistika guztiak barneratzea. Zein da musikari profesional bat? Galdera honi erantzuteko gai izango bagina…

Momentuz ez daukagu galdera horri erantzungo dionik. Kasu batzuk, gutxiengoak, argiak diren arren, musikarien gehiengoak lan bat baino gehiago edukitzen dituzte, eta askotan bigarren edo hirugarren lanak ez dauka zerikusirik musika edo kulturarekin; beste batzutan, zorionez, bai. Baina urte honetan zehar egin diren inkesta eta ikerketetara bueltatuz, hainbat eragile eta erakunde saiatu gara musikarien egoera latzaren inguruko informazio zehatza biltzen sektorearen egoeraren argazki zehatz bat edukitzeko helburuarekin. Argazkia badaukagu, bai; argazki iluna, tamalez: lur jota eta babes gabe dagoen sektorearen argazkia.

Musikari elkartea kide den Musikari Profesionalen Batasunak (UMP) egindako azterketaren arabera, lau musikaritik hiruk %90 baino gehiago murriztu du jarduera 2019ko aldi berarekin alderatuta; hiruetatik batek ez dute izan inolako kontzerturik hitzartuta edo kontrataturik 2020ko azken hiruhilekorako; eta lautik hiruk, ezta 2021eko lehen erdirako ere. Halaber, jakinarazi du hamar musikaritik bik ere ezin izan diotela Espainiako Gobernuak ateratako artistentzako aparteko langabeziari edo autonomonoei jarduera etenagatik zuzendutako laguntzei heldu. Diru laguntzak musikari, eta kulturari, oro har, ez direla iritsi argi dago, Euskal Herrian, pasa den abenduaren 3an, egunkari batek azaltzen zuen moduan: Eusko Jaurlaritzak kulturari zuzendutako diru laguntzen %17, bakarrik, banatu ahal izan du. Logikoa da sorospen neurri hauek ez iritsi izana. Nola banatu diru laguntzak modu eraginkorrean erregularizatua ez dagoen sektore bati? Aurreko emaitza eta portzentaiak ikusita, ezinezkoa dela argi dago.

Musikarien sektorea, sektore arautua izan dadin bide luzea daukagu aurretik, oraindik. Azken bi urteetan aurrerapausu txiki batzuk eman diren arren, alderdi politiko guztien arteko ahobateko akordioak eta hainbat ministerioarteko aldaketak eman beharko lirateke Artistaren Estatutua bere osotasunean errealitate bihur dadin. Kulturak gizartearentzat duen funtsezko eginkizunetik abiatuta, sektorearen eta honen profesionalen berezitasunak bilduko dituen eta, jada, indarrean dagoen araubide juridikoa hobetuko duen zeharkako araudia gauzatzeko erreminta izan beharko luke Artistaren Estatutuak. Lan asko dago egiteko kultur arloaren izaera profesionala hobetzeko eta hori lortze aldera, beharrezkoa da arteekin lotuta daudan hainbat lanbideen benetako populazioa zehaztasun handiagoz ezagutzea. Euskal Herriko artisten errolda bat egitea ezinbestekoa da honetarako.

Erronka eta laino beltzez aparte, 2020 urteak ekarri dizkio Musikari elkarteari argi izpiak. Zazpi emakumek, Euskal Herriko zazpi musikarik, hartu dute elkartearen gidaritza: Eneritz Dueso, Idoia Hernández, Lide Hernando, Olatz Salvador, Izaro Andrés, Miren Narbaiza eta Garazi Esnaolak, hain zuzen ere. Berri ona, ezin hobea Musikarirentzat eta sektore osoarentzat orokorrean. Bizitzen ari garen garai honek inoiz baino ageriagoan utzi du musikarien egoera prekarioa; prekaritate eta babes falta hori aldarrikatu, ikustarazi, eta sektorearen eskubideak defendetzako grinaz hartu dute bazkideekiko, eta musikari guztiekiko, konpromezu hau. Emakume gazteak izan arren, musikagintzan ibilbide profesional mamitsua dutenak dira. Honek esperientziaren abantaila ematen die, eta oraindik egiteko dagoenaren ikuspegi orokorra.

Urte honek sektorearen kontzientzia kolektiboa astindu duela esan genezake: plataforma, mugimendu, mobilizazio, elkarte eta kultur ekimen desberdinak sortu direlako urte osoan zehar Euskal Herri zein mundu mailan. Positiboa da nolabaiteko ardura kolektiboa piztu badu 2020ak; bizirik gaudenaren seinale. Honen lagin Musikari elkarteak estatuko beste hamalau elkarteekin batera sortutako Musikari Profesionalen Batasuna. 8000 musikari baino gehiago biltzen dituen batasuna 2020ko apirilean sortu genuen, beharrak eta egoerak bultzatuta. Musikarien ordezkari duina eta bozgoragailu bihurtu da UMP epe motzean. Historikoki, musikariak sektoreko beste eragileak ere kide diren plataformetan ordezkatuak izan dira; aretoak, diskoetxeak, managerrak eta abarrekin batera. Gaineko eragile hauekin helburu zehatz batzuk partekatu ditzazkegun arren, badira beste behar eta aldarrikapen erabat desberdinak, eta hauek bideratzeko modurik ez da egon orain arte.

Bestalde, instituzio publikoekin, bereziki, interlokuzio eraginkorra sustatzeko musikarien izenean hitz egiten duen erakunde baten beharra zegoen. Profesioaren heterogeneitatea, kasuistika, beharrak, interesek eta aldarrikapenak ezagutzen dituena eta era egokian defendatuko dituena. UMP estatuko mailako hainbat instituzio publikoek, jada, aintzatetsitzen dute musikarien interlokutore bezala. Mugarri hori ospatzeko modukoa da.

Elkarteek egiten dugun lanaren egunerokotasuna askotan bakartia eta isila den arren, garrantzitsua da sektoreak eta oro har gizarteak babesa eta sustapena ematea. Asoziazionismoaren beharra eta indarra azpimarratzeko balio izan duen urte honek indarberritu egiten gaitu ondoren etorriko diren erronka eta lorpen guztiak burutzeko; Euskal Herriko musikarien kalitatea, aniztasuna eta duintasuna aldarrikatzeko, besteak beste.

**Myriam Miranda**
Musikari Elkartea



Foto: EFE/Emilio Naranjo

# *Pedro* ITURRALDE

## *El hijo del molinero*

Parecía inagotable, infinito, pero el soplo de Pedro Iturralde se extinguió el 1 de noviembre de 2020. El longevo músico de Falces (Nafarroa) vivió hasta los 91 años, casi todos ellos unido a un saxo que le convirtió en pionero del *jazz* europeo y en el primero en arrimar ese estilo al flamenco.

«¡Que toque el hijo del molinero!». Era un grito recurrente en las fiestas del pueblo durante la posguerra, porque más tarde lo estudiaría en el conservatorio, pero el primer contacto con el instrumento fue gracias a su padre, Wenceslao Iturralde, músico *amateur* y dueño de un molino a orillas del Arga. El joven Pedro, que superó una bronconeumonía soplando el saxo, causaba sensación con sus solos en la banda de Falces, donde tocó desde los nueve años. Fue su debut sobre los escenarios y nunca volvió a apearse de ellos.

De adolescente participó en la orquestina de baile de Falces, cuyo pianista le descubrió a Louis Armstrong, Duke Ellington, Glenn Miller, Coleman Hawkins y otras vacas sagradas del *jazz*. Al cumplir los dieciocho, viajó con una orquesta catalana por Europa y el norte de África y, tras regresar para hacer la mili, fue jefe de orquesta en el Hotel Plaza de Madrid. Pasó varios años en Beirut, Atenas y Ankara –de aquella experiencia proceden piezas impregnadas de distintos folklores, como las bellísimas *Pequeña Czarda* o *Suite Hellenique*–, y en bases americanas de Francia y Alemania.

En los años 60, su etapa más activa, se asentó en Madrid, en cuyo Whisky Jazz Club estuvo a punto de dejarse los pulmones, ennegrecidos por el humo del tabaco que nunca fumó activamente. Allí coincidió con estrellas como Donald Byrd, Lee Konitz, Gerry Mulligan, Donna Hightower o Hampton Hawes, junto al que grabó un soberbio disco de *standards* en 1968, y también con Tete Montoliu, el único icono del *jazz* español equiparable en importancia histórica a Iturralde.

Inspirado por la guitarra del también navarro Sabicas, a quien escuchaba embelesado por la radio cuando era niño, y con el recuerdo de las coplas aprendidas en sus años de orquesta, grabó para Hispavox dos discos seminales: *¡Jazz Flamenco!* (1967) y *Jazz flamenco 2* (1968). Es cierto que hubo flirteos previos de leyendas como Miles Davis (*Sketches of Spain*, 1960) o John Coltrane (*Olé Coltrane*, 1961), pero el de Falces consumó el acercamiento al contar con el toque puro de guitarra del por entonces bisoño Paco de Lucía, que no había cumplido aún los 20. Aunque Iturralde siempre negó hacer fusión y prefirió llamarlo «*jazz* con el espíritu de Andalucía», fue el primer español editado por el prestigioso sello Blue Note y marcó el camino a referentes posteriores como Jorge Pardo o Chano Domínguez.

En el plano *jazzístico*, su música se enmarcó en el *hard bop* de fraseo lírico, poderoso, con una técnica depurada que él veía como una mera «herramienta al servicio del arte». En los años 70 fue premiado en Mónaco gracias a *Like Coltrane* –pieza compuesta en homenaje a uno de sus referentes –junto a Dexter Gordon y Sonny Rollins– y a *Toy*. Además, mantuvo un estrecho vínculo con la música clásica, tocó con artistas de otros géneros como Serrat, Miguel Ríos, Raphael o Burning, y escribió la banda sonora de películas como *El viaje a ninguna parte* (Fernando Fernán Gómez, 1985).

En 1978 estrenó la cátedra de saxofón en el Conservatorio de Madrid, un hito porque hasta entonces eran los clarinetistas quienes enseñaban un instrumento que despreciaban por considerarlo «para payasos de circo». Tuvo siempre pena de no haber profundizado en su faceta de cantante y de no haber tenido descendencia, pero consideraba «hijos» a sus alumnos. En 1994 se retiró de la docencia, pero no de las tablas. De hecho, murió con el saxo y las botas puestas, tres semanas antes de la función que debía ofrecer en el Festival de Jazz de Madrid. «La palabra jubilación no está en mi vocabulario. No puedo dejar la música, el público me quiere mucho y me hace sentir más joven», solía comentar el hijo del molinero antes de convertirse en leyenda eterna del *jazz*.

**Juan G. Andrés**

# Musika Bulegoa Sariek

## *11 musika talderen, artisten eta erakunderen lana aintzatetsi zuten*




Zea Mays, Xabi Aburruzaga, Zukan Hirukotea, Pascal Gaigne, Niña Coyote eta Chico Tornado, Maite Larburu, Kafe Antzokia, Euskal Barrokensemble, Eresbil, Dupla eta Baloreak izan ziren 2020ko hamaika sarituak. Laugarren edizio honetan saritutakoen profila askotarikoa izan zen, baina euren «primerako lana» aitortu zitzaien Gasteizko Jimmy Jazz aretoan egindako ekitaldian.

Ez zen lan erraza izan epaimahaiarentzat. Izan ere, 108 proposamen aztertu behar izan zituzten. Proposamen horietatik guztietatik 8 aukeratu zituen zuzenean epaimahaiak. Musika Bulegoko Zuzendaritza Batzordeak, bestalde, Kafe Antzokiari eman zion Sari Berezia, eta Eresbil Musikaren Euskal Artxiboari Ohorezko Saria. Azkenik, Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean emandako saria Niña Coyote eta Chico Tornadok jaso zuten.

Musika Bulegoa Sariak Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak sortutako proiektua da, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren, Etxepare Euskal Institutuaren eta Gasteizko Udalaren laguntza izan zuen.




# *Zuzeneko Arteen Zirkuitua:*

## *250 kontzertu eta ikuskizun lau hilabetetan zehar Euskal Herrian*

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak (Musika Bulegoak), Euskadiko Antzoki Sarearen (Sarearen) lankidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuta, BESTEBAT! Zuzeneko Arteen Zirkuitua ekimena jarri zuen abian 2020an, kultura sustatzeko, agertokietara itzultzeko, erritmoa berreskuratzeko, sormena bultzatzeko eta zuzeneko arteekiko ilusioa partekatzeko.

2020ko azaroan eta abenduan eta 2021eko urtarrilean eta otsailean, hainbat arte-diziplinatako 250 emanaldi baino gehiago eskaini ziren BESTEBAT! Zirkuituan. Gehienak musika-kontzertuak izan ziren (% 80), baina antzezlanak, dantza-ikuskizunak eta zirku-funtzioak ere baziren egitarauan. Bizkaiko, Arabako eta, batez ere, Gipuzkoako 41 areto eta antzokietan eskaini ziren.

Musika-emanaldietan artista ospetsuak ikusi genituen oholtzan, hala nola Izaro, Belako eta Ruper Ordorika, baita musikari hasiberriak ere, Hakima Flissi, Maren, Idoia Asurmendi, Verde Prato eta Sara Zozaya, esaterako. Antzerkiaren atalean, izen handiko konpainiak zeuden egitarauan, besteak beste, Tanttaka Teatroa, Markeliñe eta Pirritx Porrotx eta Mari Motots. Dantzari dagokionez, erreferente diren euskal konpainiak ere zirkuituko partaide izan ziren (Dantzaz eta Kukai), eta Oliver Magoak eta The Funest Troup taldeak zirku-ikuskizunak eskaini zituzten.

Askotariko diziplinak biltzeaz eta emanaldi ugari eskaintzeaz gain, BESTEBAT! Zuzeneko Arteen Zirkuituak bazuen beste ezaugarri nabarmen bat euskal arte eszenikoen egungo panoraman: emanaldi guztiak zuzenekoak izan ziren, artistak eta publikoa Euskadiko areto eta agertokietan berriro elkartzea bait zen proiektuaren xedea. Bestalde, aipagarria da emanaldien %70 baino gehiago euskaraz egin zirela.

**Ruth Manzano**
Musika Bulegoa




BES-TE-BAT!
CAPSULA
S-TE
BAT!
Zuzeneko
Arteen
Zirkuitua
NITA PARKER
BES-TE
-BAT!
Zuzeneko
Arteen
Zirkuitua
ES-TE-BAT!
Zuzenek
Arteen
Zirkui
erak!
MUSIKA
OCIAL.
PATUA / 19:00
FE ANTZOKIA
–TRAVELLIN' BROTHERS
2021.02.12 OSTIRALA / 18:0
KUBIK ARETO
musika
bulegoa
SAREA
www.beste-bat.eus
MODELO ARETOA
19:00
8€
12/17
BUFFALO
01/14
AMORANTE
02/11
OLATZ
SALVADOR
01/07
BULEGO
01/29
ERRIMAK
BI OINETAN
02/26
GORRIA
–AITOR ETX
+ REYKJAV
–SHINOVA.
02.19 OSTIRALA / 18:00
KUBIK ARETOA

# 90 AÑOS DE LUIS DE PABLO

El 28 de enero del 2020 celebramos el nonagésimo aniversario de una de las principales figuras de la música vasca contemporánea: Luis de Pablo (Bilbao, 1930). Miembro de la llamada Generación del 51, De Pablo es un creador cuya trascendencia artística y prolijo activismo musical hacen de su labor un conjunto tan difícil de etiquetar como inabarcable, dada la heterogeneidad que lo caracteriza, a pesar de que toda su creación comparte, al menos, dos señas de identidad: la seriedad y el rigor.

Como compositor, Luis de Pablo ha difundido en el Estado español muchas de las corrientes musicales más importantes del siglo XX, desde el serialismo a la aleatoriedad, pasando por la improvisación dirigida o una apertura a otras culturas del mundo que se manifiesta en su música no solo a nivel técnico, sino por la temática y las fuentes poéticas que la nutren. Fueron estas, a partir de los años cincuenta, algunas de las formas musicales con las que «romper abiertamente —en palabras del compositor— con la así llamada tradición española: una tiranía de la mediocridad y la ignorancia nacida como mera postura defensiva». De este modo, y como algunos de sus artistas y escritores de cabecera —podemos citar aquí desde Goya a Primo Levi— De Pablo profesa un «pesimismo trascendente» capaz de abismarse al horror para «destilar algunas gotas de recóndita belleza».

Alguien que se adentra en regiones tan profundas del ser humano no podía menos que, como lo hace Luis de Pablo, preguntarse para qué escribir una obra si esta no es ambiciosa. El resultado de dicho cuestionamiento es su firme apuesta por una creación que —como afirma José Luis García del Busto, uno de sus biógrafos— resulta «monolítica y polimorfa», con un nutridísimo catálogo que recuerda a uno de los peines del viento de Eduardo Chillida: con su tronco, tan sólido y coherente, y unos brazos que, bien enraizados en la tierra, se abren al mundo en diversas direcciones. Lo hace, igualmente, por la gran variedad de géneros en los que ha compuesto, incluyendo seis óperas, decenas de partituras para ensemble o solista, piezas electroacústicas, o una producción orquestal y vocal entre las más sólidas del siglo XX español. Todas esas partituras muestran un pensamiento rítmico y polifónico de alta complejidad, caracterizado por un cuidado camerístico en el que cada voz adquiere un peso propio por su relieve y carácter, a pesar de que él mismo se confiesa «de buen grado ser hedonista antes que analista». Con el paso de los años, su música ha evolucionado desde una mayor abstracción en densidades, texturas y contrastes a una poética más clásica que reformula la historia de la música, dando cabida a lo melódico, lo diatónico y lo cromático.

Pero la importancia de Luis de Pablo como renovador de la música española no se agota en su faceta compositiva, destacando su fundación de grupos e iniciativas como Nueva Música (1958), Tiempo y Música (1959), y Alea (1965), primer estudio español de música electroacústica. A ello hemos de sumar su dirección de Juventudes Musicales o de experiencias interdisciplinarias tan potentes como los Encuentros de Arte de Pamplona (1972). Esa voluntad interdisciplinaria queda patente, asimismo, en sus numerosas bandas sonoras cinematográficas, como las de *La caza* (1966), de Carlos Saura, y *El espíritu de la colmena* (1973), de Víctor Erice.

Miembro de diversas academias de las artes, así como merecedor de prestigiosos galardones en el campo de la música, Luis de Pablo ha desarrollado una sólida carrera internacional como profesor en numerosas universidades y conservatorios. Apoyado en ese contacto directo con las jóvenes generaciones de compositores, De Pablo los ha dado a conocer allende nuestras fronteras, por medio de encargos, festivales, conferencias, escritos, o de su labor como divulgador cultural en la traducción y la radio. Los alumnos de Luis de Pablo destacan su vitalidad, humanismo y enorme cultura, así como una incansable sed de aprender y estar en contacto con las innovaciones musicales de su tiempo: piedra filosofal para esa continua actualización de la que el compositor bilbaíno ha sido buen ejemplo en las últimas siete décadas.

**Paco Yáñez**
Musikagileak



Foto: Musikagileak

2020ko irailean hasi zen XI. Musikagileak Zirkuituak hainbat omenaldi eskaini zizkion Luis de Pablori bere 90. urteurrenean, Euskal Herriko Konpositoreen Elkarteko ohorezko bazkidea bait da De Pablo. Besteak beste, *Zurezko Olerkia* bere sorkuntza karismatikoa berreskuratu zuen Musikagileak, KEA Ahots Taldeak San Telmo Museoan eskeinitako kontzertu ikusgarri batean.

Argitalpena / Edición:
**Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea**

Koordinazioa, edizioa eta zuzenketak / Coordinación, edición y correcciones:
**Mikel Chamizo**

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:
**Eneko Etxeandia Saenz**

Lege gordailua / Depósito legal:
**NA-2230-2017**

musika bulegoa

MMXX